



OÑATI
dabilen herria



Oñati.bonoak.eus 2023

OÑATIKO HERRITARRENTZAKO DIRUZ LAGUNDUTAKO EROSKETA-BONUAK

AURREKONTUA

Aurrekontua: 30.000€

Bi deskontu kanpaina:

- Udaberrian: 15.000€.
- Udazkenean: 15.000€.

Udaberriko kanpainan agortzen ez den aurrekontua udazkeneko kanpainara gehituko da.

EPEAK, ALDIAK ETA MUGAK

- Establezimenduak atxikitzeko epea: Oinarriak aldizkari ofizialean argitaratzen direnetik 2023ko azaroak 30era arte.
- Udaberriko deskontu kanpaina:
 - ✓ Bonuak erosteko aldia: 2023ko maiatzaren 3tik 2023ko maiatzaren 17ra.
 - ✓ Establezimenduko fakturazio muga: 3.500€.
- Udazkeneko deskontu kanpaina:
 - ✓ Bonuak erosteko aldia: 2023ko urriaren 4etik 2023ko azaroaren 30era.
 - ✓ Establezimenduko fakturazio muga: 3.500€.
- Udaberriko eta udazkeneko bonuak kontsumitzeko epea: 2023ko abenduaren 7ra arte.
- Zuriketa aurkezteko epea: 2023ko abenduak 15era arte.

ATXIKITZEKO BALDINTZAK

- 15 langile baino gutxiago izatea.
- Ekonomia Jardueren Gaineko Zergan (JEZ) alta egoeran Oñatin eta zerga ordaintzetik salbuetsita egotea.
- Merkataritza, ostalaritza edo pertsonentzako zerbitzu jarduera garatzea (1. eranskina).
- Jarduera ekonomikoa jendeari irekitako lokal batean garatzea.
- Ogasunean eta Gizarte Segurantzian ordainketak egunean izatea.
- Dirulaguntza publikoak eskuratzeko zigorrik edo debekurik ez izatea.

NOLA ATXIKITU?

1. Atxikimendu eskaera eta erantzukizunpeko adierazpena (E066 - 2. eranskina) bete eta udaleko sarrera erregistroan aurkeztu beharko da.
2. Saltoki berriek oñati.bonoak.eus-en web orrian “Komertzioa sortu” eta perfila editatu.

BONUEN EROSKETA

- Bonua erosteko bi aukera:
 - ✓ Online: oñati.bonoak.eus web aplikazioaren bidez “Eskuratu bonu txartela” aukera aktibatuta daukaten saltokietan (TPVa konfiguratuta).
 - ✓ Offline: Kanpainara atxikitako saltokietan.
- Deskontua: %20.
- Pertsonako muga:
 - Udaberriko kanpainan 50€ (10€-ko deskontuarekin).
 - Udazkeneko kanpainan 50€ (10€-ko deskontuarekin).

BONUEN ERABILERA

- Epea: 2023ko abenduaren 7ra arte.
- Bonua ezingo da frakzionatu.
- Erosketa-tiketaren edo fakturaren zenbatekoa bonuaren berdina edo handiagoa izan behar da.
- Bonuak ezingo dira eskudirutan trukatu eta ezingo dira itzuli.

BEZEROEN ORDAINKETAK %80

- Online bonoak: TPV birtualaren bidez.
- Offline bonoak: Saltokian bertan, ohiko ordainbideen bidez.

BONUEN JUSTIFIKAZIOA %20 (Epea: 2023ko abenduak 15).

1. Bona identifikatu; QR kodea eskaneatuta edota bilaketa aukera erabilita.
2. Erosketa-tiketaren edo fakturaren argazkia atera.
3. Argazkia oñati.bonoak.eus web aplikaziora igo.

DIRULAGUNTZAREN ORDAINKETA

- Ordainketa justifikatutako bonuen erosketa tiketak edo fakturak egiaztatu eta organo eskudunaren ebazpena eman ondoren.
- Banku transferentzia bidez, oñati.bonoak.eus web aplikazioko profilean adierazitako kontu korrante zenbakian.

JUSTIFIKAZIOA ONTZAT EMATEKO BALDINTZAK

- Tiketari edo fakturari ateratako argazkia irakurgarria izan behar da.
- Tiketaren edo fakturaren data deialdian zehaztutako epeen barruan egon beharko da. Ez dira onartuko 2023ko abenduaren 7aren ondorengo data duten tiketik edo fakturarik.
- Erosketaren zenbatekoak bonuaren balio bera edota handiagoa izan beharko du.

AKATSEN ZUZENKETAK

- Justifikatutako bonu baten akatsa antzematen bada, udalak zuzenketa eskaera bideratuko dio saltokiari posta elektronikoz.
- Saltokiak zuzenketa egiteko bi pauso eman beharko ditu:
 1. Akatsa duen erosketa ticketa edo faktura ordezkatu irudi zuzenagatik, oñati.bonoak.eus web aplikazioan.
 2. Irudi zuzena bonoak@onati.eus helbidera bidali.



OÑATI
dabilen herria

